

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak etxerik gabeko pertsoneri muturreko hotz-egoeretan larrialdiko arreta emateko baliabideak jarri ditu martxan

Aurtengo neguko protokoloak indartu egingo du kaleko egoeran dauden pertsona ahulenei ematen zaien arreta

Donostiako Udalak azaroaren 15ean jarriko ditu martxan etxerik ez duten pertsoneri larrialdietan arreta emateko neguko aldi baterako baliabideak, hirian muturreko hotza aurreikusten den gauetan aktibatuko direnak.

Mariaje Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotziak nabarmendu duenez, "aldi baterako baliabide horiei gehitu behar zaizkie Donostiako Udalak urtean 365 egunetan etxerik gabeko pertsoneri arreta integrala emateko dituen 200 harrera-plaza baino gehiago eta elikadura- eta eguneko arreta-programak. Muturreko egoera klimatologikoetan kale egoeran dauden pertsoneri babesa eskaintzeko prestazio osagarri bat da".

Izan ere, etxerik gabeko pertsonentzat urte osoan dauden baliabide iraunkorrez gain, Gizarte Ekintza Zerbitzuak protokolo zabala du, harrera eta arretarako hainbat baliabide aktibatzen dituena, neguko muturreko eguraldiak kalean gaua igarotzen duten pertsonen osasunean ondorio kaltegarriak izan ez dezan.

Muturreko hotz-gauetarako baliabideak

Duela urte batzuetatik hona, Donostiak etxerik gabeko pertsonentzako harrera zerbitzua du muturreko hotz-gauetarako. **Neguko Aterpe** hori La Sirenan dago (Igeldo pasealekua, 25) 2021etik, eta azaroaren 14tik apirilaren 1era bitartean aktibatuko da, Euskalmetek kostaldean izozte arriskua dagoela adierazten duen gauetan. Horrek 100 plaza gehitzen dizkie etxerik gabeko pertsonentzako urte osoan dauden baliabideei.

Neguko protokoloa aktibatzen denean, aterpetxea 22:00etatik 08:30era egongo da irekita, eta sarrera prozedura egokia dela bermatzeko, txartel bat aurkeztu beharko da. Txartel hori aterpean bertan jasoko da, hotz-bolada bakoitzaren irekiera egunean, 10:00etatik 13:00etara. Txartela duen pertsonak eskubidea izango du hotz-boladak irauten duen egun guztietarako plaza izateko. Gainera, irekiera gauetan janaria banatuko da aterpean sartzerakoan eta irteterakoan.

Joan den neguan abian jarri zen harrera-zentroetara joan nahi ez duten pertsona bereziki ahulei **kalean emandako arreta**, Hestia eguneko zentroko hezitzaileen eta DYAKo boluntarioen eskutik.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Arreta hori hobetze aldera, aurten ezarri da kaleko arreta-zerbitzuaren aktibazioak ez duela zerikusirik izango aterpetxeko zerbitzuaren aktibazioarekin, eta martxan jarriko da Euskalmetek hirian tenperatura 5 gradutik behera jaitsiko dela aurreikusten duen gauean.

Mariaje Idoeta zinegotziak azaldu duenez, iazko lehen esperientziaren ondoren, "Gizarte Ekintza departamentuak zerbitzu hori indartzea komenigarritzat jo du, zaurgarritasun handiena duten eta egoera horietan tratamendu berezia behar duten pertsoneri zuzendutako arreta baita".

Hala, tenperatura 5 gradutik behera jaitsiko dela aurreikusten den egunetan, hezitzaile talde bat goizean goiz joango da etxerik gabeko pertsona ahulenek gaua igarotzen duten lekuetara, egoera aztertuko dute, janari beroa eskainiko diete eta zentro batera joateko aukera emango diete, babes-neurriren bat hartu behar den baloratzeaz gain. Kostaldean izotza egiteko arriskua dagoen egunetan, hezitzaile-taldeak bere jarduna indartu egingo du, pertsona hauskorrenengana hurbilduz, goizeko lehen orduan zein arratsalde-gauean.

Inolako baliabidetara joan nahi ez badute, hotzetik babesteko produktu-kit bat emango zaie: lo-zakuak eta esterak, arropa termikoa, eskularruak, buff-a, txanoa, galtzerdiak eta barruko arropa.

Protokoloaren jarraipena egiteko, batzorde iraunkor bat ere sortu da, honako hauek osatua: Gizarte Ekintza zerbitzua, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Babes Zibila, Arrats elkarteak, SOS Deiak, DYA eta Osakidetzako Larrialdiak.

Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide iraunkorrak

Gogoan izan behar da Neguko Aterpetxearen zerbitzua baliabide osagarria dela, eta egoera jakin batzuetan aktibatzen dela. Donostiako Udalak hainbat harrera-zentro iraunkor ditu, baita eguneko arretarako beste baliabide batzuk eta elikadura-zerbitzuak ere. Horiei esker, etxerik gabeko pertsoneri arreta **personalizatua, indibidualizatua eta integrala** ematen zaie urteko 365 egunetan.

Gaur egun, Donostia da lurralde osoan bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako baliabide gehien eskaintzen dituen udalerrria, eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Zorroak ezartzen duen eskaintza guztia duen udalerrri bakarra da, baita udalen zuzeneko eskumenekoak ez diren beste baliabide osagarri batzuk ere.

Donostiak kaleko egoeran dauden pertsoneri zuzendutako 199 udal harrera plaza ditu urte osoan: 121 plaza udalaren 32 harrera-etxebizitzatan banatuta, eta horiei *Abegi Etxea* Harrera Sozialerako Udal Zentroko 56 plaza eta *Gaueko Aterpeko* 22 plaza

Prentsa oharra

Nota de prensa



gehitzen zaizkie. Gainera, *Bizitegi* programa gehitu behar zaie. Programa horren bidez, 35 pertsonentzako dirulaguntzak eskaintzen dira ostatua ordaintzeko. Beraz, **urtean 234 plaza iraunkor daude guztira**.

Udal-zerbitzuetako (*Abegi Etxea* eta *Gaueko Aterpea*) gaueko harrera-zerbitzuei dagokienez, 78 udal-plaza ditu hiriak, hau da, Gipuzkoa osoan eskaintzen diren plazen % 46,7 (167).

Eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak gaua igartzeko baliabideez gain, Donostiako Udalak 218 elikadura-zerbitzu eskaintzen ditu egunero bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat, eta aurten 882.956 € bideratuko dira horretarako. 2025ean, 24 elikadura-zerbitzu gehiago gehituko dira, **egunean 242 elikadura-zerbitzu eskainiz**.

Horrela, Donostiako Udalak baliabide iraunkorren eskaintza zabala du bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat, eta iaz gastu arrunteko **3.3 milioi euro bideratu** ziren horietara, baita **3 milioi euro ere 2023tik 2024ra bitarteko inbertsioetan**, baliabideak hobetzeko.

Donostian eskaintzen diren udal-baliabideak hauek dira (La Sirenako aterpetxeko 100 plazak gehitu behar zaizkie neguan):

- **Abegi Etxea - Harrera Sozialerako Udal Zentroa** (Mons pasealekua, 3): Ostatu propioa eta hori lortzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsona guztiei ostatua eskaintzen die. Zentroak 40 plaza ditu eraikin nagusian eta 16 familientzako eranskinean.
- **Gaueko Aterpea - Gaueko Aterpetxea** (Zorroaga Gaina): Arrazoi desberdinengatik beste ostatu-baliabiderik ez duten etxerik gabeko pertsonak hartzea du helburu. Zerbitzuak 38 plaza ditu (22 iraunkor eta larrialdietan aktibatzen diren 16 plaza) eta urteko gau guztietan irekita egoten da 20:00etatik hurrengo eguneko 09:00etara.
- **Harrera-pisuak**: Egonaldi laburra behar duten pertsonari edo familiei ostatua eskaintzen diete (gehienez 4 hilabete, luza daitezkeenak), gizarte-larrialdiko edo -larrialdiko egoera baten ondorioz, edo sendatzeko eta indarkeria-egoera bat gainditzeko bizilekurik ez duten pertsonari edo familiei, betiere babes-neurririk behar ez badute. Tutoretzapeko etxebizitzek egonaldi labur edo ertaineko ostatua eskaintzen diete bazterketa-arriskuan dauden pertsonari. Gaur egun, Donostiak 32 pisu ditu.
- **Hestia – Eguneko Zentroa (Ondarreta pasealekua, 26)**: Etxerik gabeko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua da. Helburua da pertsona horiei

Prentsa oharra

Nota de prensa



kalearen ordezkoko eguneko erreferente bat eskaintzea eta aldaketa-prozesuak lantzea, haien bizi-kalitatea eta autonomia pertsonala eta soziala hobetzeko. Zerbitzua egunero dago zabalik, asteburuak eta jaiegunak barne, eta hiru jarduera-eremu ditu: lokala bera, kalea eta komunitate-espazioak.

- **Elikadura:** Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du elikadura ez dela prestazio propioa, baizik eta Gizarte Zerbitzuen osagarria, baina zalantzarik gabe erantzun beharreko lehen mailako premia da. Hala, Donostian beste programa espezifikoko batzuk egiten dira, hala nola **Otorduak II**, espazio normalizatuetako etxerik gabeko pertsonentzako elikadura-programa. Gainera, *Abegi Etxea*, *Gaueko Aterpea* eta *Hestia* baliabideetan elikadura-zerbitzuak eskaintzen dira, eta *Bizitegi* laguntzen helburua ere bada behar horiei erantzutea.

Donostia, 2024ko azaroak 14